

EGUZKI AMANDREA,
ZER DAKARZU BERRI?
NEGUA JOAN DA
ETA ORAIN UDABERRI. ¹

¹ Txalo Pin Txalo 2 liburua.

LORE BILA IRTEN DA EIDER ESKOLATIK, ARROSAK ERAMATEKO BERE AMATXORI. ²

² *Haurtxoa Bi* liburua.

ESKUTXO BATEAN
ARROSA, JASMINA,
ZITORIA, LIRIOA
ETA KRABELINA.
AMONAK IZANGO DU
NAHIKO ATSEGINA.

³ *Haurtxoa Bat* liburua (moldatua).

HAZI TXIKI BATEN BIHOTZEAN,
GORDE-GORDERIK,
LUR AZPIAN, LANDARE BAT.
ESNATU!
ESAN ZUEN EGUZKIAK.
ESNATU!
ESAN ZUEN EURIAK.
LANDAREAK DEIA ENTZUN,
SOINEKO BERDEA JANTZI,
ETA GORPUTZA GORAKA
LUZATU ZUEN.
HAUXE DA LORE GUZTIEN
ISTORIOTXO SINPLEA. ⁴

⁴ M.F. Juncos, *Fantasia*, Aizkorri argitaletxea (moldatua).

PITA, PITA,
MARGARITA,
TXURIA ETA POLITA. ⁵

⁵ Eskolaurreko Euskararen Programakuntza

NIRE LORONTZIA

NIRE LORONTZIA OSO POLITA DA
ETA UREZTATU EGITEN DUT.
EGUNERO PIXKA BAT HAZTEN DA,
EGUZKIAREN ARGIA BAITU. ⁶

⁶ *Fantasia 4* liburua.

Oharra: haur bat ureztailua izango da eta loreontziari (haur bat makurtuta) ura botako dio eta lorea haziko da; makurtuta zegoen haurra zutik jarriko da.